

Gutienik 294 idazle diferente igaro da *Jakin*-en orrialdeetatik, 25 urte hauetan, lankidetzaz oso desberdinez, zein artikulatu-sail ederrarekin (orrialderik gehien: Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti, Joan Mari Torrealdai), zein kolaborazio bakar batekin.

Lankidetzaz honen berri zehatzagoak izan nahirik, *Jakin*-en historiaren laualdiak banan-bana arakatuko ditugu, eta aldi bakoitzean eskuhartu dutenen zenbait xehetasun eskainiko.

Aldi bakoitzaren barruan bi erataraz aztertu nahi izan ditugu idazleak: zahar/berri, laiko/apaiz. Idazleak «zahar»/«berri»tan banatzean, zera adierazi nahi dugu: ikertzen dugun aldi horren aurretik *Jakin*-en idatzi duten ala ez. Delako «berritasun» horrek, *Jakin*-en lehenbizikoz idazten duela esan nahi du, ez besterik. Idazleen aztermodu hau interesgarria iruditzen zaigu, aldi bakoitzaren idazle-politika eta tradizioarekiko jarraikitasuna, nolabait bederen, agerian gelditzen direlako.

Bigarren aztermoduak idazle «berriak» ikertzen ditu «laiko»/«apaiz» ebakiduraren arabera. Aldizkariaren historiak ematen dio puntu honi interesgarritasuna eta esan-nahia: apaizgaien aldizkari bezala jaiotzetik gaurko aldizkari izateraino eraman duen bidea luzea delako oso.

---

**IDAZLEAK**

Aldia	Zaharrak		Berriak		Laikoak		Berriak Apaizak		Orotara
	%		%		%		%		
1956-1961	—	—	124	100	14	11	110	89	124
1964-1969	73	69,5	32	30,5	46	44	59	56	105
1969-1975	33	48	36	52	47	69	22	31	69
1977-1981	31	23,5	102	76,5	111	83,5	22	16,5	133

---

Ikus dezagun hurbilagotik aldi bakoitza:

1. Lehen aldian (5-6 urte) 124 idazle ditugu. «Berriak» noski. Gehien gehienak (% 89) apaizgaiak dira. «Belaunaldi komentual» honentzat, saialeku aproposa izan da *Jakin*, eta euskal kulturarentzat idazle-harrobi oparoa. Idazleak, gaztea da oso, ikaslea. Laikoen kolaborazioa, lehen urte hauetan, urria izateaz aparte (% 11), hizkuntz alorrekoa da parte on batean.

2. Bigarren aldian (5-6 urte), 105 idazlek partehartzen du *Jakin*-en. Horietako asko eta asko (% 69,5) lehenago *Jakin*-en partehartuak dira. Ikusten denez, ba, ez debekuek eta ez ondoriozko geldiuneak sortu du etenik idazleen aldetik. Eta, gainera, berririk ere badator; eta hauetako asko laiko eta gaztea: % 44 dira dagoeneko laikoak.

3. Hirugarren aldian (5-6 urte) idazleen kopurua jaitsi egiten da. *Jakin* Sorta-ren garaian gaude. 9 zerbaki ateratzen dira denetara, bestetan baino gutiago. Hori bateko. Eta besteko, gaien tratamendua hagitx sakinagoa da, liburu mailakoa. Kolaboratzaile hauetatik ia erdia (% 48) lehenago *Jakin*-etik pasa da. Proportzio oso handian sartzen dira berriak (% 52), aukeraturiko gai bakoitzeko adituen bila jotzen bait du Zuzendaritzak. Aldi honetan laikoak nagusitzen dira idazle mailan, % 69rekin. Bere ingurunea zabaldu egiten du *Jakin*-ek.

4. Laugarren aldi hau (5 urte) arras bestelakoa da alde guztietatik. Jende askok eskuhartzen du (133), eta, gainera, idazle horietako asko berriak dira *Jakin*-en orrietan (% 76,5). Idazle asko eta berriak zergatik? Idazle berrion ugaltasunaren arrazoia honetan datzake: espezialisten lankidetzeta bilatzen du bere dossierretan orain *Jakin*-ek, betiko «euskal idazle»ena baino gehiago.

«Laiko/apaiz» dikotomiak ez du zentzurik oraingo aldizkarian, ez planteamendu mailan eta ez lankidetzarenean. Lankide laikoen partehartzea % 83,5 izan da azken bost urteotan, hasiera batetako proportzioak itzulipurdikatu egin direlarik. Horra hor datua. Eta, gainera, hau: 1975 aldera, euskal idazlegoan apaiz-jendearen hainbatekoa % 39 bueltan kalkulatzen zen. Bai orduan (% 31) eta batez ere orain (% 16,5) batezbesteko horren oso azpitik dabil *Jakin*-ekoa.

Eta amaitzeko, azken puntu bat, iruzkin luzeagoa beharko balu ere, oraingoz aipatze hutsarekin utzi beharko duguna.

Idazle-sorleku izan da *Jakin*. Ugari dira bere lehen artikulua *Jakin*-en argitaratu eman duten idazleak. «Idazle-bataioa» *Jakin*-en hartu eta gero pasa dira hauek beste alor eta einkizunetara. Orain bertan ere betetzen du *Jakin*-ek funtzio hau, baina orain baino lehen askozaz gehiago: 30-45 urte bitarte horretako idazleetan bada makina bat bere lehen urratsak *Jakin*-en eman dituenik! Zenbat? Nekez eman dezakegu orain kopuru zehatzik, idazleen lehen pausoen berri zehatzak inguratzea lan gaitza bait da, baina seguru gaude izen-lerrokada bikaina osa genezakeela *Jakin*-en idazten hasitako guztiak batabestaren ondoan bilduz.